



BEHIEN IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOA NAHITAEZKOA IZATEARI BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA

787/2023 Errege Dekretuak zenbait aldaketa ezarri zituen ganadua identifikatzeko sistemetan.

Zehazki, behi-aziendari dagokionez, 2025eko uztailaren 1etik aurrera identifikazio elektronikoa erabili beharra ezarri zen jaiotzagatik alta ematen zaien animalietan.

Horregatik, data horretatik aurrera identifikatutako txahalek ABEREk emandako krotal elektroniko berriak eraman beharko dituzte. Neurri horrek ez die eragingo data hori baino lehen identifikatutako animaliei.

Ustategian neurri hau indarrean jartzeagatik erabiliko ez diren krotal "analogiko" ofizialak badaude, ABERERI eman beharko zaizkio, suntsitu ditzan.

Identifikazio-aldaketa horiek ez dakarte aldaketarik krotalei aplikatzen zaizkien tasetan, eta behien jaiotzagatiko altetarako krotal elektronikoen doakotasunari eusten zaio.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 18a
Abeltzaintza Zerbitzua